

GIPUZKOAKO ETA ARABAKO PARTZUERGOKO ARTZAINZTA

Tesiaren egilea: Maria Isabel Elorza Puyadena

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia

Tesi-zuzendaria: Kepa Fernández de Larrinoa Pablos


Tesiaren laburpena:

Tesi honetan Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoko artzaintzari buruzko deskribapen etnografiko gaurkotua aurkezten da. Batzuetan «gaurkotu» hitza eta «artzaintza» elkarren kontrakoak direla dirudi, gaur egungo gizartean artzaintzak duen irudia bizibide zaharkituarena baita. Artzaintza mila urteko ogibidea bada ere, gai da egoera interpretatzeko eta berrikuntzak ezartzeko. Moldaketa-prozesu honetan, artzainak bateratzen ditu antzinako jakinduria eta eskarmentua berritasunarekin eta erabilgarritasunarekin.

Artzaintzak bizi duen egoera paradigmaticoan hiru eredu desberdin beha daitezke:

- Lege zaharreko artzaintza: orain dela 100 urteko artzaintzaren antzekoa dela esan daiteke, puntu batzuetan moldatua baina orokorrean garai batekoa.
- Zubi egiten duen artzaintza: antzinako hainbat ohitura mantenduz, gaur egungo eskakizunei aurre eginez, lege zaharreko eta gaurko artzaintzaren arteko oreka mantendu nahian dabil.
- Etorkizunari begira dagoen artzaintza: enpresa-munduari lotuta dago; eskulanetik edo artisautzatik zer edo zer galdua du, eta beharrezkoak diren teknologietara, sanitate- eta higiene-eskakizunetara erabat moldatua da.

Esandakoa frogatu ahal izateko, ezinbestekoa da artzainaren bizibidean murgilketa sakona egitea, hau da, ikerketa espaziala (espazioaren erabilera), funtzionalista (artzainak ardiarekin dituen eginkizunak) eta estrukturala (artzainen erlazio sozialak, errituak, festak...) lantzea. Beraz, artzaintzaren edozein paradigma hartuta, hiru fenomeno aztertu behar direla kontsideratu da: espazioa, ardia eta artzaina.



Espazioa: etengabeko konflikto baten historia. Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoa eratzeko prozesua 1401.etik aurrera hasi zen. Espazioa ikertzean, konfuntuan izan dira artzainaren eskaerak, beharrak eta gaur egunera iritsi arte jarraitu duen garapen historikoa. Konfliktoak izan dira, eta horientzat irtenbideak bilatzeak dinamika jarraitu batean sartu izan du artzaina. Egoera hori loturagilea izan da, eta partzuerren eta bereziki artzainen identitatea finkatzeko baliagarria.

Ardia: produktu naturala, fenomeno kulturala, baliabide ekonomikoa. Partzuegoko ardien artean arraza nagusia ardi latxa da, mutur beltza duen aldaerakoa. Aizkorriko mendi malkartsuetara eta hezetasunera moldatzeko izan duen gaitasunagatik bihurtu da bertako ardia. Ardia baliabide ekonomikoa denez, artzainaren kezka da arkumearen eta gaztaren egituraren edo salmentan ateratzen diren etekinak nahikoa izango ote diren gaur egungo erronkei aurre egiteko.

Artzaina: erlazio sozialak, errituak eta erritualak. Artzainak gizartean identitate berezia du eta askotan sare familiarra osatzen du, belaunaldiz belaunaldi transmititu den bizibidearen oinarri jarraituz. Indibidualki aktore soziala da, artzain gizonezko eta emakumezko bakoitza agentea delako, aldaketaren eragilea. Iraganeko lotura familiar nabarmena ere badu. Sare soziala ere eratzen du: informala, auzolanetik eratortzen dena, edo formala, elkarteetako partaide sentitzen denean.

Ondorio gisa baieztatzen da artzaintza aldaketa batean murgilduta dagoela, eta artzainak orain bizirik diren hiru paradigma desberdinetan kokatzen direla: lege zaharrekoa, trantsiziokoa eta etorkizunari begira dagoena. Tesian zehar erakusten da artzaintza jarduera bizia dela, aspaldiko jardueren jarraipena, iraganarekin soka luze eta trinko batez lotuta dagoena. Gaur egungo artzaintza globalizazioko munduari begira dago, eta biziraupena helburu zuen ekonomia batetik produktibismoa helburua duen ekonomia batera igaro da.